



«Oraindik badago ilusioa eta kemena»

■ Ane Zubeldia eta Mikel Arrizabalaga dira gaur ospatuko diren Kilometroen koordinatzaile nagusiak. Duela bi urte proiektu hau martxan jarri zenetik beraiek bideratu dituzte lanak. Guk Mikel Arrizabalagarekin hitz egiteko aukera izan dugu. Garai bateko ilusioa eta kemena oraindik bizirik dagoela uste du berak. Bi urteko lanak gaur merezitako fruitua emango duela uste dute bi koordinatzaileek. ■



Ane Zubeldia eta Mikel Arrizabalaga koordinatzaileak.

EDURNE KOCH

go dira alde batetik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezartzeko gure bi ikastoletan eta, bestetik, erreformaren aplikapenak eskatzen dituen baldintzei era egoki batez erantzuteko. Kontutan izan, Donostiako inguru hauetan D ereduko 16 urtera arteko zentro bakarrak izango gara.

Ohikoak diren bi helburu horiekin batera, aurtengo ekitaldiak beste bi nabarmentzen ditu. Batetik «euskararen normalkuntza bidean gure hizkuntzaren presentzia etengabe aldarrikatzea eta sendotzea». Mikel Arrizabalagaren ustez, Donostian horrek lan handia eskatzen du: «Hiriburuetan euskaldunena izanik ere, hiriburu erdalduna da Donostia, batez ere gure bi ikastolak kokatuta dauden auzoak. Bidebieta, Herrera, Altza, Larratxo, Gros, Ulia, Intxaurre... oso auzo erdaldunak dira eta jende horren kontzientzia sortzaile edo bultzatzaile izan nahi du festa honek». Azkenik, Ulia eta bere inguruneak ezagutaraztea du helburu jai honek: «Beti erakusten digute, edo erakusten dugu, Donostiako postal bera. Donostiak badu beste ikuspegi bat, justu gure bi ikastolak lotzen dituen: Uliako parajea».

HIRIA MASA AMORFOA Ezbairik gabe Donostian gisa honetako jai antolatzeak abantailak eta desabantailak ditu. «Garbi dago herri batean antolatzeak badituela bere erraztasunak eta bere zailtasunak. Azken hauek batez ere teknikoak dira, Donostiak ez dituenak. Baina Donostiak beste zailtasun batzuk ditu. Herria gertuago dago ikastolatik, hiria masa amorfoagoa da, zailagoa da jendeari hau zer den ulertaraztea».

Udalarekin ere antzeko zerbait gertatzen da, Mikel Arrizabalagak azaldu digunez: «Herri batean herriarengandik gertuago dago Udala, zinegotziak edozein lekutan harrapa daitezke, kalean edo tabernan. Hemengo Udalean burokrasia askoz handiagoa da, lan asko egin behar da bertara iristeko. Hala ere, nahiko pozik gaude».

Ane Zubeldiarekin batera Gipuzkoako ikastolen aldeko jai honen koordinazioa eraman du bi urte hauetan Mikel Arrizabalagak. Donostiako Herri Ametsa eta Zurriola ikastolek 1993. urtean egin zuten lehen proiektua. «Legazpiko Kilometroak ospatu aurretik egin genion Gipuzkoako Ikastolen Elkarteari lehengo urteko ekitaldia antolatzeke eskaera. Hala ere, Legazpikoei eman zitzaion. Guk pentsatu genuen aldez aurretik beraiei zegokiela eta hurrengo urtean, hau da, aurtengoa, antolatzeke eskaera egin genuen», azaldu digu Arrizabalagak. 1994ko Aste Santurako jadanik prestatua zuten proiektua, ekainean lanerako goitik beherako organigrama prestatu eta irailean «bete-bete» hasi ziren lanean, «urte eta piko daramagu bete-betean lanean».

Hemeretzi urte hauetan ikastolen aldeko festak izan duen alaketaren isla da antolaketa lana. «Izugarri aldatu da» Arrizabalagaren ustez: «Bolumen ikaragarria hartu du jai honek. Antolaketa aldetik urtez urtez gauzak gehituz joan dira, eta horrek lan handia eskatzen du». Urte t'erdi

honetan 300-400 pertsona aritu dira antolaketa lanean, eta gaur 2.000 inguru ariko dira lanean. «Garai bateko auzolana berpizten da honelako kasuetan, jendeak erantzun egiten du. Jendeak badu oraindik garai bateko ilusio eta kemena gisa honetako gauzak antolatzeke. Horrek asko poztzen gaitu».

URTEROKO HELBURUAK ERREPIKATU Helburuei dago kienez, ez dira gauzak asko aldatu. Donostian ospatuko den aurtengo ekitaldiak lau helburu nagusi ditu. Lehenik eta behin Gipuzkoako ikastolen eguna ospatzea da egun honen helburu nagusia. Bestalde, eta hau ere bestea bezain garrantzitsua, ikastolentzat dirua lortzea du helburu festa honek. «Gure ikastolak jadanik erreforman murgildurik daude eta honek, kalitatezko heziketaren bermea gordetzeko ahalegin berezia eskatzen digu». Horretarako giza baliabide eta baliabide teknikoak hobetzea ezinbestekoa da Zurriola eta Herri Ametsa ikastolentzat: «Kilometroak 95etik sortuko diren etekinak garrantzitsuak, inolaz ere nahikoak, izan-

Aukera
zabala
te,
kafe
eta
tisanetan

Autonomia, 12
(943) 46 49 35
DONOSTIA

Souvenir

Uratz

SUKALDEKO ALTZARIAK

5 urteko garantia

BERMIMGHAN, 11

DONOSTIA

☎ 29 07 66